**ERRENTERIAKO UDALA**
Kontratazio eta Ondarea

**AYUNTAMIENTO DE ERRENTERIA**
Contratación y Patrimonio

MC190624

# AKTA / ACTA

| **KONTRATAZIO MAHAIA**<br>**MESA DE CONTRATACION** | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Bilkura mota**<br>Tipo de sesión | **Ohikoa**<br>Ordinaria | X | **Ezohikoa**<br>Extraordinaria | | **Presakoa**<br>Urgente | |
| **Bilera zenbakia**<br>Nº de sesión | 23/19(a) | | **Eguna**<br>Día | | 2019-06-24 | |
| **Deia**<br>Convocatoria | 1 | **Hasiera ordua**<br>Hora de inicio | 13:05h | **Bukaera ordua**<br>Hora de finalización | 13:25h | |
| **Tokia**<br>Lugar | **Udaletxeko bilera gela**/Sala de reuniones del Ayuntamiento | | | | | |

**BERTARATU DIRA** / ASISTENTES

Yon Collar Rioseco (Batzordeburua / Presidente)
Alazne Korta Zulaika (Kontratazioko Ordezkaria/Delegada de Contratación)
Vicente Castiella (Idazkari Nagusi ordea / Secretaria General acctal.)
Irune Soto (Udal Kontuhartzailea/Interventora municipal)
Tomás Martin (Ondare eta Kontratazioko Arduraduna / Responsable de Contratación y Patrimonio)
Ramón Ruiz de Mendoza (Udal Arkitektoa / Arquitecto Municipal)
Jose Mari Jauregi (Hizkuntza Politikako Arduraduna/Responsable de Política Lingüistica)
Amaia Arotzena (Hezkuntza eta Gazteria Teknikaria/ Técnica de Educación y Juventud)
Iñaki Azkarate (Ingurumeneko Teknikaria/Técnico de Medio Ambiente)
Maite Sáez (Idazkaria/Secretaria)

Bilkuran dago ere:
- Joseba Etxarte (PSE/EE)

Asiste a esta sesión:
- Joseba Etxarte (PSE/EE)

**GORABEHERARIK** / INCIDENCIAS

Ez da gertatu.

No hay.

--------------------

Jarraian, quoruma zegoenez, partaideak gai-zerrendako gaiak aztertzen hasi dira.

Seguidamente, y dado que existe quorum, los asistentes proceden a tratar los temas del orden del día.

**ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK**

Ez da gertatu.

**1.- Proposamena: "MINTZALAGUNA egitasmoaren kudeaketa" kontratatzeko egindako Prozedura Irekian aurkeztutako eskaintzaren 1go eta 2. artxibo elektronikoak irekitzea.**

Lehenik adierazi da baliozko epean eskaintza bat (1) aurkeztu dela: "ASOCIACIÓN LAU HAIZETARA EUSKALDUNON ELKARTEA". Eskaintza 3 artxibo elektronikoz osatuta dago.

Presidenteak agindu du 1 zenbakiko artxibo-elektronikoa irekitzea, hau da, Baldintza administratibo partikularren agiriaren 19. artikuluan eskatutako dokumentazio osagarria duena, legezko epean aurkeztutako proposamenari dagokiena.

Kontratazio Mahaiak, aho batez, adostu du onartzea "ASOCIACIÓN LAU HAIZETARA EUSKALDUNON ELKARTEA", lizitazioan parte hartzeko.

Jarraian onartutako eskaintzak ireki dira, eta 2 zenbakiko artxibo elektronikoa irekita, aurkeztutako proposamena honako hau da:

* **"ASOCIACIÓN LAU HAIZETARA EUSKALDUNON ELKARTEA"** Bertan aurkeztu da proiektu teknikoa.

Behin zabaltze ekitaldia amaitu ondoren, Udal Zerbitzu Teknikoei bidali zaie onartutako fitxategi elektronikoaren edukia, dagokion txostena eman dezan balio-judizioen mende dauden esleipen irizpideen inguruan eta, era berean, ponderazioa egin dezaten lizitazioa arautu duten baldintza-agirian xedatutakoaren arabera.

**COMENTARIOS Y ACUERDOS**

No hay.

**1.- Propuesta: Apertura de los Archivos electrónicos n.º 1 y 2 de la oferta presentada en el Procedimiento Abierto incoado para la contratación de la "Implementación del Proyecto MINTZALAGUNA".**

Se procede en primer lugar a indicar que se ha presentado dentro de plazo hábil, una (1) proposición correspondiente a "ASOCIACIÓN LAU HAIZETARA EUSKALDUNON ELKARTEA", integrada por 3 archivos electrónicos.

El Presidente ordena la apertura del Archivo denominado nº 1, que contiene la documentación complementaria exigida en el art. 19 del Pliego de Claúsulas administrativas particulares, respecto de la proposición presentada dentro del plazo legal.

La Mesa de Contratación acuerda, por unanimidad, admitir a la licitación la oferta presentada por "ASOCIACIÓN LAU HAIZETARA EUSKALDUNON ELKARTEA"

A continuación, se procede a la apertura de la propuesta admitida, y abriéndose el archivo electrónico señalado con el nº 2, la propuesta presentada es la siguiente:

* **"ASOCIACIÓN LAU HAIZETARA EUSKALDUNON ELKARTEA"**, que contiene el Proyecto Técnico.

Finalizado el acto de apertura, se remite el contenido del archivo electrónico admitido, a los Servicios Técnicos municipales para que emitan el correspondiente informe sobre los criterios de adjudicación cuya valoración depende de juicios de valor, efectuando la ponderación conforme a lo dispuesto en los pliegos que han regido la licitación.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449608 - Fax 943 449658 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

Balorazioa egin eta gero, ekitaldi publikoan emango da jakitera emaitza eta, jarraian, ekitaldi publikoan ere, zabalduko da 3 zk-ko fitxategi elektronikoa, formulak aplikatuz baloratu beharreko irizpideei dagokiena.

Una vez efectuada esta valoración, se dará a conocer su resultado en acto público y seguidamente se procederá, también en acto público, a la apertura del archivo electrónico nº 3 correspondiente a criterios a valorar mediante la aplicación de fórmulas.

**2.- Proposamena: "Obra zibilaren eta jolas elementuen honikuntzarako Gauzatze-Proiektua. Txirrita Parkearen barruan definitutako obrak" kontratatzeko egindako Prozedura Irekian aurkeztutako eskaintzen 1go eta 2. artxibo elektronikoak irekitzea.**

Lehenik adierazi da baliozko epean eskaintza bat (1) aurkeztu dela: "LANDA E IMAZ, S.A.". Eskaintza 3 artxibo elektronikoz osatuta dago.

Presidenteak agindu du 1 zenbakiko artxibo-elektronikoa irekitzea, hau da, Baldintza administratibo partikularren agiriaren 19. artikuluan eskatutako dokumentazio osagarria duena, legezko epean aurkeztutako proposamenari dagokiena.

Kontratazio Mahaiak, aho batez, adostu du onartzea "LANDA E IMAZ, S.A.", lizitazioan parte hartzeko.

Jarraian onartutako eskaintzak ireki dira, eta 2 zenbakiko artxibo elektronikoa irekita, aurkeztutako proposamena honako hau da:

* **"LANDA E IMAZ, S.A."** Bertan aurkeztu da proiektu teknikoa (Obraren koordinazioa eta langileak).

Behin zabaltze ekitaldia amaitu ondoren, Udal Zerbitzu Teknikoei bidali zaie onartutako fitxategi elektronikoaren edukia, dagokion txostena eman dezan balio-judizioen mende dauden esleipen irizpideen inguruan eta, era berean,

**2.- Propuesta: Apertura de los Archivos electrónicos n.º 1 y 2 de las ofertas presentadas en el Procedimiento Abierto incoado para la contratación de las "Obras definidas en el Proyecto de ejecución de obra civil y suministro de juego. Txirrita Parkea".**

Se procede en primer lugar a indicar que se ha presentado dentro de plazo hábil, una (1) proposición correspondiente a "LANDA E IMAZ, S.A.", integrada por 3 archivos electrónicos.

El Presidente ordena la apertura del Archivo denominado nº 1, que contiene la documentación complementaria exigida en el art. 19 del Pliego de Claúsulas administrativas particulares, respecto de la proposición presentada dentro del plazo legal.

La Mesa de Contratación acuerda, por unanimidad, admitir a la licitación la oferta presentada por "LANDA E IMAZ, S.A."

A continuación, se procede a la apertura de la propuesta admitida, y abriéndose el archivo electrónico señalado con el nº 2, la propuesta presentada es la siguiente:

* **"LANDA E IMAZ, S.A."**, que contiene el Proyecto Técnico (Coordinación de la obra y personal).

Finalizado el acto de apertura, se remite el contenido del archivo electrónico admitido, a los Servicios Técnicos municipales para que emitan el correspondiente informe sobre los criterios de adjudicación cuya valoración depende de juicios de



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449608 - Fax 943 449658 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

ponderazioa egin dezaten lizitazioa arautu duten baldintza-agirian xedatutakoaren arabera.

Balorazioa egin eta gero, ekitaldi publikoan emango da jakitera emaitza eta, jarraian, ekitaldi publikoan ere, zabalduko da 3 zk-ko fitxategi elektronikoa, formulak aplikatuz baloratu beharreko irizpideei dagokiena.

**3.- Proposamena: "Errenteriako Udalaren Fanderiako Errotako (Ibaiaren etxea) ibaiaren interpretazio guneko Ostalaritza kudeaketa" kontratatzea.**

Presidenteak proposamena irakurri ostean, batzordekideek, aho batez, ondoko

**Erabakia hartu dute:**

1.- Espedientea IREKITZEA Errenteriako Udalaren Fanderiako Errotako (Ibaiaren etxea) ibaiaren interpretazio guneko Ostalaritza kudeaketa" kontratatzeko.

2.- Kontratazioa era prozedura irekia izatea ZEHAZTEA eta tramitazioarena ohikoa.

3.- Kontratazioa espedientea ONARTZEA, lizitazioa arautuko duten Baldintza Administratibo Partikularren eta Baldintza Teknikoen Agiriak barne.

4.- Lizitazioa DEITZEA, eta horrela iragarriko da GAO-n eta Errenteriako Udalaren kontratatzailearen profilean, **HOGEITA HAMAR (30) egun naturaleko** epean, modu horretan proposamenak aurkez daitezen.

valor, efectuando la ponderación conforme a lo dispuesto en los pliegos que han regido la licitación.

Una vez efectuada esta valoración, se dará a conocer su resultado en acto público y seguidamente se procederá, también en acto público, a la apertura del archivo electrónico nº 3 correspondiente a criterios a valorar mediante la aplicación de fórmulas.

**3.- Propuesta: Contratación de la "Gestión Hostelera del Centro de interpretación fluvial del Molino de Fandería (Ibaiaren etxea) del Ayuntamiento de Errenteria".**

Tras la lectura de la propuesta por la Presidenta, se adopta por unanimidad, el siguiente:

**Acuerdo:**

1º.- INCOAR expediente para la contratación de la "Gestión Hostelera del Centro de interpretación fluvial del Molino de Fandería (Ibaiaren etxea) del Ayuntamiento de Errenteria".

2º.- DETERMINAR como forma de contratación la de procedimiento abierto y forma de tramitación ordinaria.

3º.- APROBAR el expediente de contratación, incluyendo los Pliegos de Claúsulas Administrativas Particulares y Prescripciones Técnicas que han de regir la licitación.

4º.- CONVOCAR la licitación, anunciándose así en el BOG y en el Perfil de Contratante del Ayuntamiento de Errenteria, por un plazo de **TREINTA (30) días naturales**, para presentar proposiciones.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449608 - Fax 943 449658 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

**4.- Proposamena: "Gazteluxto balio anitzeko harrera Zentroa, behin behineko harrerarako etxebizitzak eta Laguntza zerbitzua-ren kudeaketa" egiteko "EMAÚS GIZALAN, S.L.U."-rekin sinaturiko kontratua zabaltzea.**

Presidenteak proposamena irakurri ostean, batzordekideek, aho batez, ondoko

**Erabakia hartu dute:**

1º.- "EMAÚS GIZALAN, S.L.U."sinatutako kontratua aldatzea uztailean (20 egunez "Gaztelutxo abegi-zentro balioanizduna, aldi baterako bizitokiak eta laguntza zerbitzuak kudeatzeko" zerbitzua eman dezaten, eta zenbatekoa 31.030,33 euro, %10eko BEZa barne,izango da, baldintza teknikoen pleguetan adierazitakoaren arabera zein Gizarte Zerbitzuetako arduradunak txostenean esandakoaren arabera.

2.- Era berean, ESKATZEA adjudikazio-hartzaileari hamabost (15) laneguneko epean, handitzearen jakinarazpena egin denetik kontatzen hasita, **1.410,47 euro** zenbateko behin betiko bermea jar dezan.

3.- Era berean, ESKATZEA adjudikazio-hartzaileari 15 laneguneko epean, adjudikazioaren jakinarazpena egin denetik kontatzen hasita, bertaratzeko Udaletxe honetan, modu horretan kontratua sinatu dadin administrazio dokumentuan.

Kontratua sinatzeko ekitaldia Idazkaritza Orokorreko bulegoetan (Herriko plaza z/g - 2. solairua) egingo da Zerbitzuak hala eskatuta.

**4.- Propuesta: Ampliación del contrato suscrito con "EMAÚS GIZALAN, S.L.U" para la "Gestión del Centro de Acogida Polivalente Gazteluxo, las viviendas de alojamiento temporal y Servicio de acompañamiento".**

Tras la lectura de la propuesta por la Presidenta, se adopta por unanimidad, el siguiente:

**Acuerdo:**

1º.- MODIFICAR el contrato suscrito con "EMÁUS GIZALAN, S.L.U.", para la "Gestión del Centro de Acogida polivalente Gaztelutxo, las viviendas de alojamiento temporal y el Servicio de acompañamiento" para prestarlo durante el mes de julio (20 días), por un importe de 31.030,33 euros (10% IVA incluido), de conformidad con lo establecido en los pliegos de condiciones que rigieron la licitación, así como en el informe emitido por la Responsable de Servicios Sociales.

2º.- REQUERIR al adjudicatario para que en el plazo de quince (15) días naturales, contados desde el siguiente a aquel en que le sea notificada la ampliación, proceda a la constitución de la garantía definitiva por importe de **1.410,47 euros** suplementarios.

3º.- REQUERIR asimismo al adjudicatario para que en el plazo de 15 días hábiles a contar desde el siguiente a la notificación de la adjudicación, concurra ante este Ayuntamiento para la formalización del contrato en documento administrativo.

El acto de formalización del contrato se efectuará en las oficinas de Secretaría General (Herriko Plaza, s/n- 2º planta) a requerimiento del Servicio.

4.- 31.030,33 euroko gastua (%10 BEZ barne) BAIMENTZEA A-1176-2019 zenbakiko zorpekoaren kontura.

5.- ARGITARATZEA kontratuaren adjudikazioa, Errenteriako Udalaren kontratatzailearen profilean, iragarki baten bidez.

**5.- Proposamena: "Errenteriako Belabaratz udal aterpetxearen garbiketa eta bezeroen harrera zerbitzua" kontratatzea.**

Presidenteak proposamena irakurri ostean, batzordekideek, aho batez, ondoko

**Erabakia hartu dute:**

1.- Espedientea IREKITZEA "Errenteriako Belabaratz udal aterpetxearen garbiketa eta bezeroen harrera zerbitzua" kontratatzeko.

2. Kontratazio prozedura Irekia ZEHAZTEA eta ohiko izapidea.

3. Kontratazioa espedientea ONARTZEA, lizitazioa arautuko duten Baldintza Administratibo Partikularren eta teknikoen agiriak barne.

4.- Lizitazioa DEITZEA, eta horrela iragarriko da Errenteriako Udalaren kontratatzailearen profilean, **HAMABOST (15) egun naturaleko** epean, modu horretan proposamenak aurkez daitezen.

5.- 26.400 €-ko gastua (BEZa barne) BAIMENTZEA lehenengo urtebeterako, A-707-2019; A-05-17-2020 y A-05-20-2021 zorpekoen kontura.

4º.- AUTORIZAR el gasto de 31.030,33 (10% IVA incluido) con cargo al contraído A-1176-2019.

5º.- PUBLICAR la adjudicación del contrato mediante anuncio en el perfil del contratante del Ayuntamiento de Errenteria.

**5.- Propuesta: Contratación del "Servicio de limpieza y recepción a los clientes del Albergue Belabaratz de Errenteria".**

Tras la lectura de la propuesta por la Presidenta, se adopta por unanimidad, el siguiente:

**Acuerdo:**

1º.- INCOAR expediente para la contratación del "Servicio de limpieza y recepción a los clientes del Albergue municipal Belabaratz de Errenteria".

2º.- DETERMINAR como forma de contratación la de procedimiento abierto y forma de tramitación ordinaria.

3º.- APROBAR el expediente de contratación, incluyendo los Pliego de Claúsulas Administrativas Particulares y prescripciones técnicas que han de regir la licitación.

4º.- CONVOCAR la licitación, anunciándose así en el Perfil de Contratante del Ayuntamiento de Errenteria, por un plazo de **QUINCE (15) días naturales**, para presentar proposiciones.

5º.- AUTORIZAR el gasto de 26.400€ (IVA incluido) para las dos primeras anualidades, con cargo a los contraidos n.º: A-707-2019; A-05-17-2020 y A-05-20-2021.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449608 - Fax 943 449658 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

**6.- Proposamena: "Errenteriako DBJn aniztasuna lantzeko proposamena eta dinamizazioa" kontratatzea.**

Presidenteak proposamena irakurri ostean, batzordekideek, aho batez, ondoko

**Erabakia hartu dute:**

1.- Espedientea IREKITZEA "Errenteriako DBHn aniztasuna lantzeko proposamena eta dinamizazioa" kontratatzeko.

2.- Kontratazioa era prozedura irekia izatea ZEHAZTEA eta tramitazioarena ohikoa.

3.- Kontratazioa espedientea ONARTZEA, lizitazioa arautuko duten Baldintza Administratibo Partikularren eta Baldintza Teknikoen Agiriak barne.

4.- Lizitazioa DEITZEA, eta horrela iragarriko da Errenteriako Udalaren kontratatzailearen profilean, **HAMABOST (15) egun naturaleko** epean, modu horretan proposamenak aurkez daitezen.

5.- Aurreko 2 ikasturterako 28.133,60 €-ko gastua (%10 BEZa barne) BAIMENTZEA, A-1086-2019; A-05-51/2020 eta A-05-05/2021 zorpekoaren kontura.

**6.- Proposamena: Contratación de la "Elaboración de una propuesta de trabajo y dinamización en torno a la diversidad en los Centros de ESO de Errenteria".**

Tras la lectura de la propuesta por la Presidenta, se adopta por unanimidad, el siguiente:

**Acuerdo:**

1º.- INCOAR expediente para la contratación de la "Elaboración de una propuesta de trabajo y dinamización en torno a la diversidad en los Centros de ESO de Errenteria".

2º.- DETERMINAR como forma de contratación la de procedimiento abierto y forma de tramitación ordinaria.

3º.- APROBAR el expediente de contratación, incluyendo los Pliegos de Claúsulas Administrativas Particulares y Prescripciones Técnicas que han de regir la licitación.

4º.- CONVOCAR la licitación, anunciándose así en el Perfil de Contratante del Ayuntamiento de Errenteria, por un plazo de **QUINCE (15) días naturales**, para presentar proposiciones.

5º.- AUTORIZAR el gasto de 28.133,60€ (10% IVA incluido) para los dos primeros cursos, con cargo a los contraidos n.ºs: A-1086-2019; A-05-51/2020 y A- 05-05/2021.

Errenterian, 2019ko ekainaren 24an

BATZORDEBURUA,

Stua/Fdo.: Yon Collar.

IDAZKARIA,

Stua/Fdo.: Maite Sáez.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449608 - Fax 943 449658 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net